

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

**LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA**

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Elizalde kontseilariak parte hartu du Latxa Esneak, ardi-esnearen ekoizleen kooperatibak, antolatutako ekitaldian

Ekitaldian, Idiazabal eta Erronkari gazten ekoizpen-prozesuan esku hartzen duten agente guztien lana aldarrikatu da

Asteartea, 2018.eko apirilak 10

Nafarroako Gobernuo Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilaria den Isabel Elizalde, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako sailburuorde Bittor Orozekin batera hartu du parte INTIAren egoitzan egin den topaketan, Idiazabal eta Erronkari gazten ekoizpenaren balio-katean esku hartzen duten agente guztien lana aldarrikatzeko, latxa ardiaren artzainetatik hasi eta gaztaren azken ekoizleetara bitarte.



Kontratuak sinatzeko unea.

Ekitaldian, halaber, honako hauek hartu dute parte: Latxa Esnea kooperatibako lehendakariak, Mariano Imazek; Idiazabal eta Erronkari jatorri-izendapeneko ordezkariak, Jose Maria Ustározek eta Lorenzo Sarrateak, hurrenez hurren; Dorrea (Mikel Martiarena), Larra (Mikel Aznarez) eta Buruaga (Xabier Aizpeolea) gaztandegietako kudeatzaileak, Nere Bereziartuarekin batera, Lekunberriko Institutu Laktologikoko kudeatzailearekin.

Jardueran zehar, Dorrea, Larra eta Buruaga gaztandegietako ordezkariak Latxa Esnea kooperatibarekin sinatu dituzte 2017-18 kanpainarako latxa ardiaren esne-salmenta (horrekin egiten dituzte gaztak) arautzen duten kontratuak, Idiazabal eta Erronkari jatorri-izendapenen barnean. Kontratuetan, besteak beste, honako hauek ezartzen dira: oinarritzeko prezioa, ordaintzeko modua, esnearen kalitatea, laginak hartzea, entregatu beharreko kopurua, kanpainaren iraupena eta bi aldeen erantzukizunak.

Sinaduraren bidez, adierazi dute, "gazta horien ekoizpen prozesuan hasieratik amaierara arte esku hartzen duten agente guztiak nabarmendu eta horiei garrantzia eman nahi zaiela, ahalegin bakoitzaren atzean zer dagoen ezagutzera eman eta hori koordinatzeak duen garrantzia azpimarratzearen". Gainera, aldeen arteko lankidetzaren erakutsi nahi da, kontsumitzaileari tokiko produktua, ziklo osoan zehar hurbilekoa eta kalitate

bermatukoa emate aldera.

Elizalde kontseilariak nahiz Oroz sailburuordeak bi administrazioek sektoreari eta jarduerari ematen dioten babesa azpimarratu dute. Zehazki, Isabel Elizaldek ondorengo nabarmendu du: "sektorea egituratuta izateak duen garrantzia merkatura baldintza bideragarrietan sartu ahal izateko" eta era horretako ustiapenek duten garrantzia "biztanleria finkatzeko eta lurraldea antolatzeke". Modu berean, latxa ardien plan estrategikoa aipatu dute; agente ezberdinen artean egiteko prozesu bete-betan aurkitzen den plana, sektorearen etorkizuna eratuko duena.

Latxa Esnea ardi-esnearen ekoizleen taldea Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako latxa ardien artzainen 35 ustiapenek osatzen dute, eta produkzioa latxa ardi-esnearen 800.000 litrorira iristen da.

ARGAZKI-OINA:

Zutik, ezkerretik eskuinera: Ustárroz, Bereziartua, Elizalde kontseilaria, Oroz sailburuordea eta Sarratea.

Eserita, ezkerretik eskuinera: Aznarez, Imaz, Martiarena eta Aizpeolea.